## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**1166**

**12/2011 FORU DEKRETUA, otsailaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, zehaztu egiten dira lehentasunezko mezenasgo jarduerak, 2011rako.**

Sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduera eta programen finantzaketan izango duen parte hartzea arautzen du Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak.

Hain zuzen ere, ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda foru arau horretan bertan adierazitako interes orokorreko helburuen esparruan zehaztuko duela Arabako Foru Aldundiak xedatzen du foru arau horretako 29. artikuluko 1. paragrafoak. Agindu horrek foru dekretu hau onartu beharra ekarri du.

Artikulu horren arabera, erregimen berezia izango dute mezenasgoko lehentasunezko jardueretarako eta programetarako bideratzen diren kopuruak. Kopuruak garbiak eta soilak izan behar dira; ezin dute eduki inolako kontraprestaziorik. Erregimen berezi hau honetan datza, laburbilduta:

a) Lehentasunezkotzat jo diren jarduera edo programetarako diru kopuruak gastu kengarri izango dira Sozietateen gaineko eta Ez-Egoiliarren (establezimendu iraunkorraren bidez jarduten bada) Errentaren gaineko zergen oinarria zehazterakoan; enpresarientzat eta profesionalentzat, berriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenean izango da gastu kengarri.

b) Sozietateen gaineko eta Ez-Egoiliarren (establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badute) Errentaren gaineko zergen subjektu pasiboek kendu egin dezakete zehaztutako kuotatik (ezarpen bikoitzagatiko kenkarien zenbatekoan kuota osoa gutxitzetik ateratzen den kuota likidotik eta, hala badagokio, hobarietatik) lehentasunezkotzat jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 18; baita publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako dirua ere.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, zuzeneko zenbatespenaren bidez egiten badituzte ekonomia jarduerak, kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezkotzat jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 18; baita publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako dirua ere.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gainontzeko subjektu pasiboek kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezkotzat jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 30.

Hortaz, foru dekretu honen bidez, zer jarduera edo programa jotzen diren lehentasunezkotzat, 2011. urterako, zehaztu nahi da, Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 29. artikuluaren ondorioetarako.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluaren hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, ez da aginduzkoa batzorde horren txostena.

Zerga-Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

**1. artikulua. Xedea.**

Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 29. artikulua garatzea da foru dekretu honen helburua.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**1166**

**DECRETO FORAL 12/2011, del Consejo de Diputados de 22 de febrero, que determina las actividades prioritarias de mecenazgo para el ejercicio 2011.**

La Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo establece el marco normativo sobre la participación del sector privado en la financiación de actividades o programas prioritarias de mecenazgo.

En concreto, el apartado 1 del artículo 29 de la citada Norma Foral señala que la Diputación Foral de Álava establecerá, para cada ejercicio, una relación de actividades o programas prioritarios de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general a que se refiere dicha Norma Foral. Dicho precepto determina la necesidad de aprobar este Decreto Foral.

En base a este artículo, las cantidades destinadas a actividades o programas prioritarios de mecenazgo disfrutan de un régimen especial. Estas cantidades aportadas deben ser puras y simples y, en consecuencia, exentas de toda contraprestación. Este régimen especial se puede resumir de la siguiente forma:

a) Las cantidades destinadas a las actividades o programas declarados prioritarios tendrán la consideración de gasto deducible en la determinación de la base imponible del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de no Residentes cuando se opere mediante establecimiento permanente y, en el caso de empresarios y profesionales en el régimen de estimación directa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

b) Los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de no Residentes que operen mediante establecimiento permanente podrán deducir de la cuota líquida resultante de minorar la íntegra en el importe de las deducciones por doble imposición y, en su caso las bonificaciones, el 18 por ciento de las cantidades destinadas a las actividades o programas declarados prioritarios, incluso en virtud de contratos de patrocinio publicitario.

c) Los sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que desarrollen actividades económicas en régimen de estimación directa, podrán deducir de la cuota íntegra el 18 por ciento de las cantidades destinadas a las actividades o programas declarados prioritarios, incluyéndose las cantidades satisfechas en virtud de contratos de patrocinio publicitario.

d) Los sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas no incluidos anteriormente podrán deducir de la cuota íntegra el 30 por ciento de las cantidades destinadas a las actividades o programas declarados prioritarios.

Por tanto, el presente Decreto Foral tiene por objeto determinar qué actividades o programas se declaran prioritarias, a los efectos del artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, reguladora del Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, para el ejercicio 2011.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

**Artículo 1. Objeto.**

El presente Decreto Foral tiene por objeto el desarrollo del artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo.

**2. artikulua.- 2011n lehentasuna izango duten jardueren zerrenda.**

Bat. Ondoko jarduera eta programa hauek izango dira lehentasunezkoak 2011. urtean, Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 29. artikuluaren ondorioetarako:

a) Gizarte zerbitzuen esparruan:

Onura publikotzat jotako eta gizarte zerbitzuetan ari diren gizarte erakundeei emandako kopuruak.

Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatzeko, ezinbestekoa da gizarte erakundeak Arabako Foru Aldundiaren aintzatespena izatea.

b) Ingurumenaren esparruan:

1. Arabako parke naturaletako ingurumena berreskuratzeko, onik zaintzeko, ikertzeko eta zabaltzeko programetarako Arabako Foru Aldundiari emandako diru kopuruak.

2. “Gasteiz Europako Hiriburu Berdea, 2012” Plana gauzatzeko Gasteizko Udalari emandako diru kopuruak.

c) Garapen teknologikoaren esparruan:

Ikerketa, garapen edo berrikuntza jarduerak egiten dituzten pertsona eta erakundeei emandako diru kopuruak.

Aurreko idatz zatian jarritakoaren aplikaziorako, beharrezkoa da kasuan kasuko pertsonak edo erakundeak Arabako Foru Aldundiaren aintzatespena izatea, eragin hauetarako.

d) Kulturaren esparruan:

1. Arabako Artium Fundazioa.
2. Santa Maria Katedrala Fundazioa.
3. Gasteizko Jazzaldia Elkartea.
4. Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola.
5. Gasteizko Arte Sakratuaren Museoa.
6. Laudioko Gastronomiaren Euskal Museoa.
7. Artziniegako Etnografia Museoa.
8. Euskaltzaindia.
9. Euskalerriaren Adiskideen Elkartea.
10. Eusko Ikaskuntza.
11. Arabako Arkeologia Institutua, La Hoya Aztarnategia eta Buradongo eliza paleokristaua finkatzeko.
12. Urizaharreko Administrazio Batzarreko Anbararen Interpretaziorako Zentroa.
13. Interes kulturala duten jarduerak egiteko Arabako Foru Aldundiari emandako dirua.
14. Añanako Gatz Harana Fundazioari bere helburuak betetzeko emandako kopuruak.
15. Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Gune Elkartua
16. Azkena Rock Festival sustatu eta antolatzeko Gasteizko ARF-i emandako diru kopuruak.
17. FesTVal, Gasteizko Telebista eta Irrati jaialdia, sustatu eta antolatzeko Fila 2 kultura elkarteari emandako diru kopuruak.

e) Kirolaren esparruan:

1. Baskonia Fundazioa.
2. Deportivo Alavés Fundazioa.
3. Álava Vive Deporte Fundazioa (ALVIDE).
4. Arabako Lurralde Historikoa ordezkatzen duten kirol erakundeei, nazioartean jarduten dutenei, emandako diru kopurua.

Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da kirol erakundeak Arabako Foru Aldundiaren aintzatespena izatea.

f) Enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan:

San Prudentzio Lan Fundazioa.

g) Gizartearen esparruan:

1. Fernando Buesa Fundazioa.
2. Retos Fundazioa.

h) Euskara sustatzeko esparruan.

**Artículo 2. Relación de actividades prioritarias para el año 2011.**

Uno. Se declaran actividades prioritarias, a los efectos del artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, para el ejercicio 2011, las siguientes actividades o programas:

a) En el ámbito de los servicios sociales:

Cantidades entregadas a entidades de carácter social declaradas de utilidad pública y que realicen actividades en el área de los servicios sociales.

La aplicación de lo dispuesto en el párrafo anterior requerirá que la entidad de carácter social se encuentre, a estos efectos, reconocida por la Diputación Foral de Álava.

b) En el ámbito del medio ambiente:

1. Cantidades entregadas a la Diputación Foral de Álava para ser destinadas por ésta a Programas de recuperación, conservación, investigación y divulgación ambiental de los Parques Naturales de Álava.

2. Cantidades entregadas al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para ser destinadas por éste a la ejecución del Plan “Vitoria-Gasteiz Capital Verde Europea 2012”.

c) En el ámbito del desarrollo tecnológico:

Cantidades entregadas a personas o entidades que realicen actividades de investigación, desarrollo o innovación.

La aplicación de lo dispuesto en el párrafo anterior requerirá que la persona o entidad se encuentre, a estos efectos, reconocida por la Diputación Foral de Álava.

d) En el ámbito cultural:

1. Fundación Artium de Álava.
2. Santa María Katedrala Fundazioa - Fundación Catedral Santa María.
3. Asociación Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz.
4. Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz.
5. Museo de Arte Sacro de Vitoria-Gasteiz.
6. Museo Vasco de Gastronomía de Llodio.
7. Museo Etnográfico de Artziniega.
8. Euskaltzaindia - Real Academia de la Lengua Vasca.
9. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
10. Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos.
11. Instituto Alavés de Arqueología, para la consolidación del Poblado de La Hoya y de la iglesia paleocristiana de Buradón.
12. Centro de Interpretación del Ámbar de la Junta Administrativa de Peñacerrada.
13. Cantidades entregadas a la Diputación Foral de Álava para ser destinadas a actividades de interés cultural.
14. Cantidades entregadas a la Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana Fundazioa para el cumplimiento de sus fines.
15. Centro Asociado de Vitoria-Gasteiz a la Universidad Nacional de Educación a Distancia.
16. Cantidades entregadas a ARF Vitoria-Gasteiz SL para la promoción y organización del Azkena Rock Festival.
17. Cantidades entregadas a la Asociación Cultural Fila 2, para la promoción y organización del Festival de Televisión y Radio de Vitoria-Gasteiz - FesTVal.

e) En el ámbito deportivo:

1. Fundación Baskonia.
2. Fundación Deportivo Alavés.
3. Fundación Álava Vive Deporte (Alvide).
4. Cantidades entregadas a entidades deportivas representativas del Territorio Histórico de Álava cuya actuación tenga repercusión a nivel internacional.

La aplicación de lo dispuesto en el párrafo anterior requerirá que la entidad deportiva se encuentre, a estos efectos, reconocida por la Diputación Foral de Álava.

f) En el ámbito de la responsabilidad social empresarial:

Fundación Laboral San Prudencio.

g) En el ámbito social:

1. Fundación Fernando Buesa.
2. Fundación Retos/Retos Fundazioa.

h) En el ámbito de la promoción del euskera.

Araba Euskaraz 2011 ekitaldiaren antolatzaileei emandako kopuruak.

i) Interes orokorreko bestelako helburuetako esparruan:

1. Kultura Kudeatzeko Foroa - Disonancias kultura elkartea.

2. Automozio arloko industria eta kirol jarduerak sustatzeko elkartea (AFYPAIDA).

3. World Series By Renault FR3.5 txapelketan eta World Series By Renault FR2.0 Eurocup txapelketan parte hartzeagatik Sociedad Epsilon Euskadi SL-ri emandako diru kopuruak.

4. Euskampus proiekturako Euskal Herriko Unibertsitateari emandako diru kopuruak.

Bi. Era berean, lehentasunezkoak dira Estatuko eta lurralde historikoetako organo eskudunek halakotzat jotakoak, baldin eta haiek onartutako arauetan, Arabako Foru Aldundiak aurreko paragrafoan aintzatetsitako jarduerak lehentasunezkotzat onartzen badira.

**3. artikulua.- Ziurtagiriak.**

Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikuluan jasotako zerga onurak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da zergapekoek, Zergaren autolikidazioaz gainera, kenkaria sortu duten kopuruak lehentasunezko jarduera edo programetarako erabili direla frogatzen duen ziurtagiria aurkeztea.

Zergapekoek emandako kopuruak jasoko dituzten erakundeek berek eman beharko dute ziurtagiri hori.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak eman behar du artikulu honetako lehen bi paragrafoetan aipatzen den ziurtagiria, aurreko 2. artikuluko lehenengo ataleko b) idatz zatiko 1. paragrafoko kasuan.

Halaber, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak eman behar du artikulu honetako lehen bi paragrafoetan aipatzen den ziurtagiria, aurreko 2. artikuluko lehenengo ataleko 13. paragrafoko d) idatz zatiko kasuan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**

Foru dekretu honetako 2. artikuluko lehen paragrafoko a) idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, lehentasunezkotzat jotzen dira ondoko jarduerak, 2011. urterako: Arabako Foru Aldundiak urtarrilaren 22ko 3/2008 Foru Dekretuaren bidez aintzatetsitako erakundeek gizarte zerbitzuen esparruan 2008rako egindako jarduera edo programak; baita Arabako Foru Aldundiak martxoaren 3ko 20/2009 Foru Dekretuaren bidez aintzatetsitako erakundeak 2009rako egindakoak ere.

**Bigarrena.**

Foru dekretu honetako 2. artikuluko lehen paragrafoko a) idatz zatian xedatukoaren ondorioetarako, Burmuineko Hartutako Gaitzaren Arabako Elkartea (ATECE) aintzatesten da.

**Hirugarrena.**

Foru dekretu honetako 2. artikuluko lehen paragrafoko c) idatz zatian xedatukoaren ondorioetarako, lehentasunezkotzat jotzen dira ondoko jarduerak, 2011. urterako: Arabako Foru Aldundiak otsailaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren 82/2010 Foru Erabakiaren bidez aintzatetsitako erakundeak teknologiaren esparruan 2010erako egindako jarduera edo programak.

**Laugarrena.**

Foru dekretu honetako 2. artikuluko lehen ataleko e) idatz zatiko 4. paragrafoan xedatukoaren ondorioetarako, lehentasunezkotzat jotzen dira ondoko jarduerak, 2011. urterako: Arabako Foru Aldundiak martxoaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 118/2008 Erabakiaren bidez aintzatetsitako kirol erakundeak kirolaren esparruan 2008rako egindako jarduera edo programak.

Las cantidades entregadas a la entidad organizadora del Araba Euskaraz 2011.

i) En el ámbito de otros fines de interés general:

1. Asociación Cultural Foro de Gestión Cultural - Disonancias.

2. Asociación para el Fomento y Promoción de Actividades Industriales y Deportivas de Automoción (AFYPAIDA).

3. Las cantidades entregadas a la Sociedad Epsilon Euskadi, SL, para la participación en la competición World Series By Renault, FR3.5 y en la competición World Series By Renault, FR2.0 Eurocup.

4. Las cantidades entregadas a la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea para el Proyecto Euskampus.

Dos. Igualmente se declaran actividades prioritarias las así establecidas por los órganos competentes del Estado y de los Territorios Históricos, siempre que, en la normativa aprobada por los mismos, se reconozcan de forma recíproca las actividades aprobadas por la Diputación Foral de Álava en el apartado anterior.

**Artículo 3. Certificación.**

Para poder aplicar los beneficios fiscales contemplados en el artículo 29 de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, será necesario que el obligado tributario aporte, junto con la autoliquidación del Impuesto correspondiente, una certificación en la que se acredite que las cantidades objeto de deducción se han destinado a las actividades o programas declarados prioritarios.

La referida certificación deberá ser expedida por la entidad receptora de las cantidades entregadas por el obligado tributario.

En el supuesto del número 1 de la letra b) del apartado Uno del artículo 2 anterior, la certificación a la que hacen referencia los dos primeros párrafos del presente artículo deberá ser expedida por la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

Asimismo en el caso previsto en el número 13 de la letra d) del apartado Uno del artículo 2 anterior, la certificación a la que hacen referencia los dos primeros párrafos del presente artículo deberá ser expedida por la Dirección de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava.

DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**

A los efectos de lo dispuesto en la letra a) del apartado Uno del artículo 2 del presente Decreto Foral, se mantienen como actividades prioritarias, para el año 2011, las actividades o programas realizados, en el ámbito de los servicios sociales, por las entidades reconocidas por la Diputación Foral de Álava, para el ejercicio 2008, mediante Decreto Foral 3/2008, de 22 de enero, así como las realizadas por la por la entidad reconocida por la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2009, mediante Decreto Foral 20/2009, de 3 de marzo.

**Segunda.**

A efectos de lo dispuesto en la letra a) del apartado Uno del artículo 2 del presente Decreto Foral, se reconoce a la Asociación de Daño Cerebral Adquirido de Álava (ATECE).

**Tercera.**

A los efectos de lo dispuesto en la letra c) del apartado Uno del artículo 2 del presente Decreto Foral, se mantienen como actividades prioritarias, para el año 2011, las actividades o programas realizados, en el ámbito tecnológico, por la entidad reconocida por la Diputación Foral de Álava, para el ejercicio 2010, mediante Acuerdo 82/2010, del Consejo de Diputados, de 16 de febrero.

**Cuarta.**

A los efectos de lo dispuesto en número 4 de la letra e) del apartado Uno del artículo 2 del presente Decreto Foral, se mantienen como actividades prioritarias, para el año 2011, las actividades o programas realizados, en el ámbito deportivo, por la entidad deportiva, reconocida por la Diputación Foral de Álava, para el ejercicio 2008, mediante Acuerdo 118/2008, del Consejo de Diputados, de 4 de marzo.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Araugintzarako gaikuntza.**

Ahalmena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena. Indarrean jartzea.**

ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean foru dekretu hau, eta 2011rako eragingo ditu ondorioak.

Gasteiz, 2011ko otsailaren 22a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera. Habilitación Normativa.**

Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la aplicación y desarrollo del presente Decreto Foral.

**Segunda. Entrada en vigor.**

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOTHA y surtirá efectos para el año 2011.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2011.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

**1167**

**102/2011 ERABAKIA, otsailaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Zanbranako Administrazio Batzarrarekin batera 315 zenbakiko partzuergoa eratzea, bai eta, kontratu txikiaren prozeduraren bidez, partzuergoaren helburu den azalera basoberritzeko proiektua ere.**

Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak, Zanbranako Administrazio Batzarrak aurkeztutako eskaera ikusita, 2006ko basoko suteagatik eta 2009ko Klaus zikloiagatik pairatutako kalteen ondoren, haren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko partzuergo berria eratzea proposatu du, katalogatu gabeko bere jabetzako mendia basoberritze aldera, “La Isla” eta “La Campanilla” eremuetan, Zanbranako Landa Katastroko 1. poligonoko 1047. eta 1048. lurzatietan, ezbeharrek kaltetutako 6,265 ha guztien 5,4400 ha-ko jarduera azalerarekin, ibilguko bidetik 5 m-ko zabaleran jabari publiko hidraulikoko zonaldeari dagozkion 0,8250 ha-k landatu gabe utzita.

2006ko ekainaren 12an basoko sute bat sortu zen Ebro ibaiaren ezkerreko ertzean eta Zanbranako Administrazio Batzarraren eta Arabako Foru Aldundiaren artean hitzartutako partzuergoko makaldia zati batean kaltetu zuen, “Campazo” edo “La Isla” eremuan. Horren partzuergoa, 214.a, Diputatuen Kontseiluko urriaren 3ko 1535/1989 Foru Erabakiaren bidez ezarri zen, 30 urterako, 2019. urrira arte, bertatik lortutako basoko baliabideak mantentzeko eta aprobetxatzeko; ondoren, Mendi Zerbitzuko 936/07 espedientearen bidez, suteak kaltetutako zuhaitzak moztea eta aprobetxatzea izapidetu zen, 3,8900 ha-ko azalerako hedadura hartu zuena.

Klaus zikloiak, 2009ko urtarrilaren 24koak, partzuergoko makaldiko beste zonalde bat suntsitu zuen “La Isla” eremuan; ondorioz, 2,3750 ha-ko unadan makalak erori eta apurtu ziren, ibaiaren ertz berean, hegoaldean, suteak kaltetutako zonaldearen parean. Horren aprobetxamendu ezohikoa Nekazaritza Saileko apirilaren 6ko 92/2009ko Foru Aginduaren bitartez bideratu zen.

Ezbehar horiek eragindako kalteen ondorioz, Zanbranako Administrazio Batzarrak, katalogatu gabeko mendiaren erakunde titularra zen heinean, basoberritu zezaten eskatu zuen Arabako Foru Aldundiarekin egindako partzuergo berriko erregimenean.

Eskatutakoari jarraiki, 2009ko otsailaren 21ean, Mendi Zerbitzuak Zanbranako herriko katalogatu gabeko mendia basoberritzeko proiektua bideratu zen (esp. zk.: 45/09/03), 315. zenbakiarekin

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

SERVICIO DE MONTES

**1167**

**ACUERDO 102/2011, del Consejo de Diputados de 22 de febrero, que aprueba la constitución del Consorcio nº 315 con la Junta Administrativa de Zambrana así como el proyecto de reforestación de la superficie consorciada mediante procedimiento de contrato menor.**

El Servicio de Montes del Departamento de Agricultura a la vista de la solicitud presentada por la Junta Administrativa de Zambrana, tras los daños sufridos por incendio forestal en 2006 y por el ciclón Klaus en 2009, propone la constitución de un nuevo consorcio entre ésta y la Diputación Foral de Álava, consistente en la reforestación en monte sin catalogar de su pertenencia, en los términos de “La Isla” y “La Campanilla”, Parcelas 1047 y 1048 del Polígono 1 del Catastro de Rústica de Zambrana, con una superficie total de actuación de 5,4400 ha del total de 6,265 ha afectadas por los siniestros, dejándose sin plantar las 0,8250 ha correspondientes a la zona de dominio público hidráulico en una anchura de 5 m desde la línea del cauce.

Con fecha 12 de junio de 2006 se declaró un incendio forestal en la margen izquierda de la ribera del río Ebro que afectó parcialmente a la chopera consorciada entre la Junta Administrativa de Zambrana y la Diputación Foral de Álava, en el término de “Campazo” o “La Isla”, cuyo Consorcio, nº 214, se estableció mediante Acuerdo Foral 1535/1989, de 3 de octubre, del Consejo de Diputados con una duración de 30 años, hasta octubre de 2019, para el mantenimiento y aprovechamiento de los recursos forestales derivados de él, posteriormente mediante expediente nº 936/07 del Servicio de Montes se tramitó la corta y aprovechamiento del arbolado afectado por el incendio, con un alcance superficial de 3,8900 ha.

El ciclón Klaus del 24 de enero de 2009 arrasó otra zona de la chopera consorciada, en el término de “La Isla”, produciendo la caída y rotura de chopos en un rodal de 2,3750 ha. localizado en la misma margen del río al sur y a continuación de la zona afectada por el incendio, cuyo aprovechamiento extraordinario se ejecutó por Orden Foral 92/2009, de 6 de abril, del Departamento de Agricultura.

Como consecuencia de los daños causados por estos siniestros la Junta Administrativa de Zambrana, en calidad de Entidad titular del monte no catalogado solicitó su reforestación en régimen de nuevo consorcio con la Diputación Foral de Álava.

En atención a lo solicitado, con fecha de 21 de febrero de 2009 se elaboró por el Servicio de Montes Proyecto de reforestación en monte sin catalogar de la pertenencia del pueblo de Zambrana (Expte. 45/09/03),